

Foucaulten historikotasunaz

M

oral eta etika kontestu historikoaren emaitza erlatiboak direla diozu Juanjo, eta ez da gezurra. Baina arazoa da diskurtso moralak bere erla-


tibotasunik ez duela, definizioz, inoiz onartzen. Bizitza ororen gaineretik dagoela dioenak ez dizu aitortuko inoiz bere bizitzarekiko atxikimendua aldakorra denik, elastikoa denik, tolesgarria denik, finean, hipokrita denik, nahiz eta garbi egon hala dela. Adibide bakar bat ematearren, nola ez justifikatu nazien aurkako erresistentzia ekintza hilketa “terroristak” funtsean? Eta noski, batzuentzat hilketa hori zilegizkoa baldin bada, ondokoarentzat beste bat izango da, eta jakina, hirugarren batentzat kontestu historiko berezi batean gertaturiko guardia zibil batena, edota etakide batena, edo World Trade Centerreko gorbatadun *trader* batena. Hilketa bakar bat bera ere inoiz justifikatuko ez lukeen pertsonarik ez dut ezagutzen. Hori da egia.

Bestalde, eta gure baitako *hitlerñoaz* berririo ere hitz egiteko, nik garbi daukat gizateriak mundu zabalean burutzen duen eta inoiz burutu duen hilketa guztien eta bakoitzaren konplize morala naizela, gizaki naizenez geroz. Ez dut uste posible denik “eskuak garbitzea”. Badakit soinean ditudan jantziei Asiako langile esplotatuen odola eta izerdia darizkiela, badakit gure europar hirietako harrizko eraikin dotoreek ere milaka indio edo esklabo amerikarren oinaze garrasien oihartzun urrunek errebotatzen jarraitzen dutela... Nietzschek zioenez –barka nire erreferentziak Foucault baino zaharxeagoak badira–, luxu oro beste batzuen esklabotzaren emaitza da, esklabotza masiboan bermatzen da, eta demokrazia ateniarrak miresgarria ere ez zen inoiz demokrazia izatera iritsi bere ongizatea bermatu zuten milaka esklaboentzat. Hemen ere, gure gizarte penintsularrean –nolabait izendatzearen–, beste maila batean noski –baina hori arrazoi nahikoa al da aspirazio guztiei zilegitasuna uka-

DANI BLANCO



Mr Apalategi



Basterretxea



Olasagerre

tzeko?–, demokrazia existitzen da... baina ez denentzat. Coluche komiko frantziarrak esaten zuenez –hau bai Foucaulten garaikidea duzu, begira–, hemen denok berdinak gara... baina batzuek oraindik berdina goak. Batzuek armada bat izateko eskubidea dute beraien gizarte demokratikoaren segurtasuna babesteko, batzuek beraien hizkuntza beste inposatzeko eskubidea dute, elkarbizitza bermatzen duelakoan, batzuek epaitegien eta legearen jabe dira denon onerako, eta zerrenda hau nekerik gabe luza nezake. Orduan, bai, borroka batzuk bortitzak dira –mesedez kendu nire begien aurretik odol hori, baina utzi iezadazu lasai petrolio irakiarra kontsumitzen nire soldaduek hemendik milaka kilometrorra burutzen dituzten hilketak ahanztuta, utzi iezadazu lasai haurtxo txinatarrak beraien bista galduz lurpeko mintegi klandestinoetan jositako jantziak prezio merkean erosten–, baina otoi, ez gaitezen termino moraletan aritu.

Esaten duzu, Juanjo, ETAre jardunak eragiten duela beharbada Estatuaren boterea harrotzea. Moralaren arlotik estrategiarenera lerratu zara oharkabean beraz –ala oharturik, ez baitago tontoaren izpirik zure baitan–. Eta pozten naiz. Baina ez nago ados kezka horrekin ere. Funtsean, egia izan arren interakzio bat dagoela bataren eta bestearen artean (nola uka ETAz baliatzen dela Estatu bere indar erakustaldiak zilegiztatzeko, jokatu egiten duela horrekin), hori niri ez zait inporta. Eta ez zait inporta behar. Niri nire beharrak inporta zaizkit, bitalak ala luxuzkoak. Estatu ez harrotzea ez da helburua niretzat. Bost axola zait harrotuta ala baretuta egon espainiar estatua, bejondeiola, ez baitauka zerikusirik naitzenarekin, izan nahi dudana erekin. Edo bost axola litzaidake... ez baleuka bere mende nire etorkizuna.

Ttakunerako darabiltzagan makilek ez al dizkizute eskuak erreko Jose Inazio, azken aldion dexente berrotu baitira. ■

Esaten duzu, Juanjo, ETAre jardunak eragiten duela beharbada Estatuaren boterea harrotzea. Moralaren arlotik estrategiarenera lerratu zara oharkabean beraz –ala oharturik, ez baitago tontoaren izpirik zure baitan–